

## Diseinuko ikasleak Maier lehiaketako finalean

2013/07/16

Lehiaketa honetan honakoak izan dira hautagaiak: Diseinu arloko enpresak nahiz erakundeak, unibertsitateak edota ikerketa zentroak. Parte hartzaile bakoitzak gehienez hiru proiektu aurkezteko aukera izan du.


Maier Koop.E. Diseinuko Nazioarteko Lehiaketan beren proposamena aurkeztu zuten hautagaietatik soilik 19 iritsi dira finalera; horietatik 5 Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak dira, Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduko espezialitatekoak. Euren proposamenak aurkeztu zituzten eta finalera iritsi ziren. Horiez gain, Dakit Design enpresako bi laguntzaile ere finalera iritsi ziren.

Ibilgailuaren barrualderako nahiz kanpoalderako diseinua egiteko eskatu zitzairen, ondorengo arloetarako:

- Ibilgailuaren aginte paneleko aurrealdea.
- Ibilgailuaren ateko panelaren heldulekua.
- Ibilgailuaren aurrealdeko modulua.
- Ibilgailuko atearen muntaiak.

Sari banaketa 2013ko irailaren 6an egingo da Zornotzan (Bizkaia), AIC (Automotive Intelligence Center) eraikuntzan.

Informazio gehiago: <http://www.maierdesign.es/eu/bases.php>



Maier Nazioarteko Diseinu  
Lehiaketa